# ESKOLA BIDEAN
# TIBUR OTSOAREKIN

Istorioa: Erleta Eskolako haurrak,
Unai Ruiz Galartza eta Iñigo Alduntzin Garcia

Irudiak eta diseinua: Unai Ruiz Galartza





Behin batean,
Leitzelarre ingurura
otso ibiltari bat iritsi zen.

Lekua asko gustatu zitzaion eta bertan denboraldi batez geratzea erabaki zuen Tibur izeneko otsoak..





Hurrengo egunean, bat-batean
zerua erabat ilundu eta
euri zaparrada
ikaragarria hasi zuen.

Tormobeaz babesteko haritz handi eta zahar
baten enborraren ondoan etzan zen.



-A zer nolako suertea izan dudan horrenbeste
babesten nauen zuhaitz hau
aurkitzeaz!
Eta zeinen erosoak diren
goroldio goxoz erabat estalita
dauden bere sustrai handi hauek!

-Pentsamendu
hauekin batera
erabat
lasaitu eta lo
gelditu zen gure
Tibur.



Esnatu zenean konturatu zen sustraietako goxotasun horren ordez harri hotz eta gogor baten gainean zegoela. - Non daude zuhaitzak eta sasiak? Non belarra, goroldioa eta orbela?

Leitzako plazako armarriaren gainean zegoen. Magia zirudien!



Tibur otsoa erabat
beldurtuta zegoen.
Ez zuen deus ere ulertzen.
Mendiko borda batzuk
ikusiak zituen,
baita baserriren batera
hurbiltzera ausartu ere
aspaldi.
Baina halako etxe
handirik ez zuen
sekula ere ikusi.

Ilargia
behintzat
hor dago


Basorako bidea aurkitu behar dut!!
-Pentsatu zuen.
Ez zegoen inor kalean.
Gaueko isiltasunean
noraezean abiatu zen,
errepide erdi-erditik
arrasto txuriak
jarraituz.



Bat-batean argi
batzuk handitzen
ikusi zituen.
Gero eta handiagoak
ziren eta trumoiaren
soinuaren antzeko
burrunba bat ere
gero eta ozenago
aditzen zen.



Otsoa ikaraturik buelta erdia eman eta argi eta zarata haietatik ihesi korrika hasi zen bazterrean, bi zakarrontzi artean, gordeleku bat aurkitu zuen arte. Jauzi bat egin eta hantxe gelditu zen bihotza lasaitu nahian.

Zer ote zen ondotik ziztu bizian pasa zitzaion munstro beldurgarri hori?



Oraindik dardarka
zegoela eguna
argitzen hasi zuen
eta hainbat tamaina
eta formatako
aurrekoaren
antzeko munstro pila
ateratzen hasi
ziren alde batetik
bestera zarata
ikaragarria eginez.



Tibur otsoak gordelekutik pertso
alde batetik bestera oinez joat
ikusi zuen.
Baina harrigarria egiten zitzaion

Ohartu zen b
bide bat hart
eta gutxitan pas
pertsonak munstroak ibi
eta aldera



nak ere
en zirela

munstroekin inor ez beldurtzea.

akoitzak
zen zuela
atzen zirela
ltzen ziren lekutik
ntziz.

Tamaina txikiko pertsona batzuei begira ari zen Tibur. Otsokumeen antzera taldean saltoka eta korrika ari ziren alai-alai.




Bai, bera ere horrelaxe ibiltzen zen jolasean inguruko beste otsokumeekin txikiagoa zenean.

Baina... Zertan ari dira kume horiek?
EZ al dira konturatzen munstroen
ibilbidera sartzen ari direla?!




Ohh eZ!!! Munstro gorri bat dator
zuzen-zuzenean hauek jatera!!!


Pii

Bi aldiz pentsatu gabe, Tibur bere gordelekutik atera zen eta jauzi indartsu batez haurren parean jarri eta espaloira bulkatu zituen.

PIIIIIIIIIIIIIIIIIIIII!!!!!

luze bat entzun zen.

Eta ondoren...

-Otsoak salbatu ditu!!!

-Otsoak salbatu gaitu!!!



Horrenbesteko
jendetza eta
zalapartarekin
erabat ikaratuta,
saltoka eta
zilipurdika
korrika hasi
eta halako ziztuan
zihoanez
Arekozubitik behera
errekara erori zen
Tibur.



Lau haurrak hura salbatzera joan ziren eta salabardoarekin Tiburotsoa ateratzea lortu zuten.



Lehortu zenean, Erleta eskolara joan behar zirela azaldu zioten otsoari.

-Lagunduko gaituzu?

Eskolan harrera ezin goxoagoa egin zioten Tibur otsoari eta handik aurrera ikasle auzokideak leku eta ordu berean gelditzeko proposamena luzatzea adostu zuten.

Leitzak dituen horrenbeste auzotatik eskolara heltzeko, ordea, bide bat baino gehiago zegoen eta ikasle bakoitzak bere bidea zein zen garbi izateko, haren berri ozen adieraztea erabaki zuten. Horretarako, lau lagunek Tiburrekin batera eskolatik barrena ideia oihukatuz berria zabaldu zuten.




MANUEL LASARTEKOAK
AREKO ZUBIKO PARKEAN




ELBARRENGOAK
ALIÑEA
PAREKO ESPALOIAN


ATXI
AZOLAKOAK
TIROLINAKO
PARKEAN
ELGOIENGOAK
LEITZA
EZAGUTU
TURISMO
BULEGOAN
Leitza ezagutu
AMAZABALGOAK eta GARRAIOAN DATOZENAK
KIROLDEGIKO ATARIAN



Mezua zabaldu ondoren, umeek otsoa plazako armarrira bueltatzen lagundu zuten.

Egun hartatik aurrera, otsoa goizero-goizero armarritik ateratzen da umeek eskolako joan-etorria bide segurutik egin dezaten.

Lanak amaitu ondoren, otsoa armarrira bueltatzen da atseden hartu eta hurrengo egunerako indarrak hartzeko.

Eta hala bazan edo ez bazan,
sar dadila
Leitzako herriko armarrian
eta atera dadila
Erleta eskolan.




KIROL DEGIA
ITZAIRE HE
ERLETA
100m


UDALETXEA
HERRI ARETOA